

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN ZAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2021 Foru Dekretua, otsailaren 9koa. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua, onesten duena Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, gaur egun Gizarte Politiken Saila

Diputatu Nagusiak, uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2019-2023 legegintzaldirako, eta Gizarte Politiken Sailaren esku utzi zituen, besteak beste, eginkizun eta eskumen arlo hauek: hirugarren adina, desgaitasuna, haurtzaroa eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak.

Legegintzaldia hasi zenetik urtebete baino gehiago igaro ondoren, eta gizarte politikek bizi duten aldaketa testuingurua kontuan hartuta, ikusi da emandako baliabideen eta zerbitzuen kudeaketa zailtzen ari dela, eta beharrezkoa dela Gizarte Politiken Sailean zuzendaritza berri bat sortzea, Arabako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuak antolatzeke eredu berri bat zuzendu eta kudeatzeaz arduratuko dena. Horregatik, kudeaketa eredu eraginkorragoa eta efizienteagoa lortu nahian, eta, aldi berean, kalitate goreneko zerbitzu publikoak ematea ahalbidetuz, erabaki da Gizarte Politiken diputatuari laguntzeko zuzendaritza unitate berri bat sortzea, sail horri atxikitako bulegoak, zerbitzuak eta erakundeak zuzendu, kudeatu eta koordinatzeko.

Horrenbestez, kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.2 artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen diola sailen egitura organikoa onestea, Gizarte Zerbitzuen Sailaren (egungo Gizarte Politiken Saila) egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua aldatzen da.

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauek onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikorako jarraibideak. Horrela, aurrekarietan gaia arautu beharra dagoela justifikatu da, eta, gainera, araubide jarduketa neurrikoa da, gutxienekoa baino ez baitu jorratzen helburuak lortzeko: Sailaren eta bere zuzendaritza unitateen eskumen esparrua mugatzea, hautemandako premia berrien arabera.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzeak, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Horregatik, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekreturen 2. artikulua aldatzea. Honela gelditzen da:

2. artikulua. Egitura

Aurreko artikuluan adierazitako jardun arloei buruzko eginkizunak eta eskumenak betetzeko, Gizarte Politiken Saila, saileko titularraren zuzendaritzapean, honako unitate organiko hauetan egituratzen da:

1. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, zeinari hauexek atxikitzen zaizkion:

a) Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzako Zerbitzua.

b) Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzua.

2. Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza.

Bigarrena. Gobernu Kontseiluari buruzko otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuaren 10. artikulua ondoren, III. Kapituluaren gehitzea; hona izenburua: Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza.

Hirugarrena. Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuari 10.bis artikulua gehitzea III. kapituluaren barruan; hona testua:

10 bis artikulua. Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza

10 bis.1. Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritzari dagokio Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauaren 75. artikulua eta horrekin bat datozenetan zuzendariei esleitzen zaizkien eskumen orokorrak baliatzea, baita delako sailari dagozkion eginkizunen eta jardun eremuen esparruan araudiak esleitzen dizkion gainerako guztiak ere, aurreko 5. artikuluan jasotzen den bezala.

10 bis.2. Gainera, berarizko eginkizun hauek gauzatzea dagokio Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritzari:

1. Gizarte Politiken Sailari atxikitako erakundeetan antolaketa eredu berriak sustatzea, metodologia egituratuak aplikatzea eta eredu horiek definitzeko behar diren jarduerak abian jartzea.

Halaber, erakunde horiei laguntza emango die eredu berrietara aldatzeko komunikazio prozesuak diseinatzen, garatzen, entregatzen eta kudeatzen, aldaketa prozesuaren eragina adierazleena arabera ebaluatuko du, eta ereduak aldatzearen ondorioz sor litezkeen desadostasunen aurrean konponbideak proposatuko ditu.

2. Prestakuntza prozesuak eta programak babestea eta garatzea sailean eta atxikitako erakundeetan antolaketa kultura berriak sendotzeko.

3. Sailari eta atxikitako erakundeei laguntza ematea komunikazio prozesuak, talde lidergoa eta talde lana hobetzeko.

4. Sailari eta atxikitako erakundeei laguntza ematea zuzendaritzen eta zuzendariordetzen lidergoa hobetzeko programak antolatzen eta garatzen.

5. Sailari eta atxikitako erakundeei laguntza ematea informazio prozesuetan eta antolaketa ereduarekin bat datozen trebakuntza programen diseinuan.

6. Atxikitako erakundeei aholku ematea erakundearen hazkunde intelektuala bermatzeko ezagutzaren kudeaketan erabilitako metodologiei buruz, eta garatutako jardueren inpaktua neurtzeko tresnen aplikazioari buruz.

7. Sailari eta atxikitako erakundeei aholkularitza eta laguntza ematea ebaluazio sistemak diseinatu, ezarri eta garatzeko.

8. Lankidetzaren harreman iraunkorra izatea Sailari atxikitako erakundearen ohiko kudeaketaren arduradunekin.

9. Gogoeta sustatzea, politika publikoak bideratzen laguntzeko.

10. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari laguntza ematea etorkizuneko erronkei aurre egiteko lurralde historikoaren gaitasuna indartzeko abian jartzen diren ekimenetan, gizarte politiken aldaketaren testuinguruan.

11. Atxikitako erakundeen jarduera Arabako Foru Aldundiak proposatutako helburuetara egokitzen dela kontrolatzea.

12. Gizarte Politiken Saileko titularrak bere eskumen esparruan haren esku uzten dituenak gauzatzea; baita Arabako Foru Aldundiaren sailerako zuzendariei era orokorrean esleiturik daudelako komunak diren guztiak ere.

Laugarrena. Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuko 10.bis artikulua-
ren ondoren IV. Kapituluak txertatzea; hona izenburua: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

Bosgarrena. Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuko 11. artikulua-
ren ondoren V. Kapituluak txertatzea; hona izenburua: Indesa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA



ANEXO

**GIZARTE POLITIKEN SAILAREN ORGANIGRAMA
ORGANIGRAMA DEL DEPARTAMENTO DE POLITICAS SOCIALES**

